



Edurtiak

Lehen beste eztauela egitten, eztauela egitten, baiña 2004. urtia fan orduko, Oñatiko kale inguruak edurrez zurituta agertu xaku. Aurtengo negua bihar dan moduan hasi dala esango dau norbaitteke. Baleike. Udazkenian, zemendi eta abenduan behintzat, danetik euki dogu: erlaiñua eguardira arte sarritan, lanbro narrasak askotan, eurixa idolaz beste batzuetan, eguraldi polittik noizian behin, edurra mendixan udazkenian eta negua aillegau alaz bat behekaldian be bai.

Sasoari dagokixon lez, eguraldixa aldakor dabil. Meteorologuak aurretik esan ezpaloskue, nork pentsau, Gabon-eguneko giro garbi, epel eta zoragarrixaren ondoren, Natibitate eta hurrengo egunetan hainbesterañoko aldaketia etorri bihar zanik; oiñaz-tua, trumioa, eurixa, txingorra eta edurra derrepentian. Baiña garaixan garaikuak eta orain halako gorabeherak egotiak ezkau harrittu bihar. Etzarai akordaitten urte asko ez-tala zelako girua egin eben Gabon Zaharretan? Gazterixia gabaz alkondara hutsian kalia ibiltteko modukua.

Edurtiak, dana dala, antxiñakuak. Hori entzun izan dogu beti: lehenago edur gehixago egin eta luzaruan irauten ebela. Jakiña, orduan ez eukain orain lako makiñarik kamiñuak garbiketako. Baiña, edozein modutan be, baleike uste horrek arrazoï pittin bat izatia. Badira iritzi hori indarketako-edo, edurraren inguruko pasadizuak gure herrizan. Esaterako, edurte ikaragarri batek jente mordotxua Arabako menditan harrapo ebeneakua: denpora askuan, Oñatititik Bittorixara fateko, Katillu-itturritik zihar zoian Kalahorrako kaltzadia izan zan biderik zuzen eta azkarrena; neguan, baiña, kontuz ibilli bihar izaten zan, uste bariko edurtiekin batez be. Halako batian Arabatik Oñatira eta hemendik hara ebiltzen pertsonak ez atzera eta ez aurrera geratu ziran egunetan edurra zala-eta. Gehixenak, zela edo hala, San Juan Artixako bentan topau euen aterpeia eta babeslekua, eta horri eskerrak salbau ziran.

Kolejalden ataratako argazki zahar honek zenbat gomuta ekarriko doskuen maristetan, institutuan edo ospittalian ikasten jardundako oñatiar askori. Izan be, makiña bat neskaitilla-mutikok bizi izan dittugu inguru horretan neguan edurraz egitten gittuan jolasak eta burrukak. Fotografixa honetako estudiantiak gerra aurrian unibersidade zaharrian jarri zan institutukuak dira, orain dala 75 bat urtekuak. Edurtutoko paisajian erreka aurreko arkazia gaziatik ikusten dira ezkerrian; eta atzeko aldian Goizeko Izarra palaziu, Exebarrialde baserixa, kanposanturako eskillarak eta arboledia, eta tren-estaziñoko hormak egin barri.

J. E.

Fotografixa Jabier Gereka zanak itxittakua da.